

Zerba patatekin eta azenarioarekin



Osagaiak

0-3 urte bitartekoentzako anoa. Helduentzat, bikoitza.

- Zerba: 40 g
- Azenarioa: 40 g
- Patata: 125 g
- Oliba-olio birjina estra: 2 g
- Gatza: 0,1 g

Chefaren iradokizuna



Marcos Aguirre
Mendebaldea

Dena batera ere irakiten ahal dugu, baina zerba bukaeran gehituta, kolore eta testura hobekiago izanen dira, baita emaitza ere.

Zerba patatekin eta azenarioarekin

Nola egin

Lehenengo eta behin, azenarioak zuritu, garbitu eta puskatu. Gero, patatak zuritu, garbitu eta puskatu.

Ur irakitan jarri 15 minutuz.

Bitartean, zerba garbitu eta puskatu. Hala mamiak nola hostoak erabiliko ditugu.

Zerba gehitu irakitearen azken bi minutuetan.

Zerbitzatu nahi beste irakite-urarekin batera, eta olio gordin zurrustadatxo bat bota.